

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ENTZIAKO PARTZUERGOA

Behin betiko onestea 2020ko ekitaldirako aurrekontu orokorra

Ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu Entziako Partzuergoaren 2020ko aurrekontu orokorrari hasierako onespena ematen dion erabakiaren aurka. Hori dela eta, aurrekontu hori behin betiko onesten da, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko 3/2004 Foru Arauak 15. artikuluan, eta Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legeak 150. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz. Hona hemen aurrekontua, kapituluka xehatuta:

GASTUEN EGOERA

KAPITULUAK	ZENBATEKOA
I. Langile gastuak	44.050,00 euro
II. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	47.501,00 euro
III. Finantza gastuak	700,00 euro
IV. Transferentzia arruntak	107.403,00 euro
VI. Inbertsio errealak	229.402,00 euro
VII. Kapital transferentziak	3,00 euro
VIII. Finantza aktiboak	0,00 euro
IX. Finantza pasiboak	0,00 euro
Gastuen egoera, guztira	429.059,00 euro

DIRU SARREREN EGOERA

KAPITULUAK	ZENBATEKOA
I. Zuzeneko zergak	0,00 euro
II. Zeharkako zergak	0,00 euro
III. Tasak eta bestelako diru sarrerak	2.403,00 euro
IV. Transferentzia arruntak	33.438,02 euro
V. Ondare bidezko diru sarrerak	164.083,80 euro
VI. Inbertsio errealak besterentzea	0,00 euro
VII. Kapital transferentziak	229.134,18 euro
Diru sarrerak, guztira	429.059,00 euro

Entziako Partzuergoaren 2020ko aurrekontu orokorra behin betiko onesten duen erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian. Horretarako, bi hilabete izango dira, iragarki hau argitaratzen denetik aurrera. Dena den, aipatutako erabakiaren aurka berraztertzeko errekurtsua aurkeztu

ahalko zaio, nahi izanez gero, Entziako Partzuergoaren Batzarrari aurreko idatz zatian adierazitako administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu baino lehen. Horretarako, hilabete izango da, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Agurain, 2020ko apirilaren 6a

Lehendakaria

ERNESTO SAINZ LANCHARES